



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 9an

52 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko abuztuan bidali dituen ebazpenen eta foru agindu baten bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Lekualdatze lehiaketa hutsik geratu da (9. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko azaroan egindako bilerak (10. or.).
- 1998ko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (13. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko abuztuan bidali dituen ebazpenen eta foru agindu baten bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txos-

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko abuztuaren Nafarroko Parlamentura bidali ziren ebazpenen eta foru agindu baten bidez gauzatu-tako aurrekontu-aldaketen legezkotasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko ekainaren 7an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu ebazpenei eta foru agindu bati buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko ekainaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“308/1998 EBAZPENA, ekainaren 4koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako eskariak; haien bitartez eskatzen da kreditu-sorkuntzaren bidezko kreditu-gehikuntzak egitea ondoko kontusailetan: “Energiaren kogenerazio instalazioa mantentzea. Kontratua SINAerekin”; lerroa, 18540-3; zenbatekoa, 2.570.890 pezeta; “Entseiu klinikoak”; lerroa, 18485-7; zenbatekoa, 908.183 pezeta. Ondoko kontusailetan izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu dira: “Iberdrolari energia hornitzea. Energiaren kogenerazio instalazioa”; lerroa, 37610-9; zenbatekoa, 2.570.890 pezeta; eta “Entseiu klinikoetarako transferentziak”; lerroa, 37617-6; zenbatekoa, 908.183 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) letraren arabera, izan ere hor ezartzen baita Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela esku-

dun aurrekontu aldaketa horiek baimentzeko. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen aurrekontuan kreditu-sorkuntzak egitea ondoko kontusailetan: 52230-2280-4121 “Energiaren kogenerazio instalazioaren mantenimendua. Kontratua SINAerekin” kontusaila; proiektua, 42000; lerroa, 18540-3; zenbatekoa, 2.570.890 pezeta; 52230-2269-3-4121 “Entseiu klinikoak”; proiektua, 42000; lerroa, 18485-7; zenbatekoa, 908.183 pezeta. Ondoko kontusailetan izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: 52230-3309 “Iberdrolari energia hornitzea. Energiaren kogenerazio instalazioa” kontusaila; proiektua, 42000; lerroa, 37610-9; zenbatekoa, 2.570.890 pezeta; eta 52230-4700 “Entseiu klinikoetarako transferentziak” kontusaila; proiektua, 42000; lerroa, 37617-6; zenbatekoa, 908.183 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 4an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“108/1998 FORU AGINDUA, ekainaren 10ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako eskaria; hartan, aurrekontuan diru aski ez dagoelako aurrekontu-gehikuntza proposatu da ondoko

kontusailean: "Plan Zuzendariaren lanak" kontusaila; lerroa, 95055-0; zenbatekoa, 300.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara handiagoekin finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" kontusaila; lerroa, 35465-2; zenbatekoa, lehengo bera.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 6. puntuko h) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez,

AGINDU DUT:

Lehena.- "1998an indarra duen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 52240-6020-4127 "Plan Zuzendariaren lanak" kontusaila; proiektua, 43000; lerroa, 95055-0; zenbatekoa, 300.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara handiagoekin finantzatu da: 11400-8700 "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2; zenbatekoa: lehengo bera.

Bigarrena.- Foru Agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegaturara.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi"

"330/1998 EBAZPENA, ekainaren 17koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak egindako eskaria; haren bidez, kreditu-sorkuntza eskatzen da ondoko kontusailean: "FIP Planeko prestakuntza programak"; lerroa, 31210-3; zenbatekoa, 173.816.978 pezeta. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeriotik Prestakuntza eta Laneratzea Plan Nazionala garatzeko ondoko kontusailean jasotako dirusarrerara handiagoekin finantzatu da: "FIP Planerako transferentziak"; lerroa, 39450-6; zenbatekoa, lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izanen dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo

sozietate publiko batekin izaeragatik horien helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrerek. Aipatutako artikulua, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena. Aurrekoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen Aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: 83200-4810-3231 "FIP Planeko prestakuntza programak" kontusaila; proiektua, 60002; lerroa, 31210-3; zenbatekoa, 173.816.978. Estatuko Administrazioak emanak, Pyme ekinbideen enpresa garapenerako ondoko kontusailean izandako dirusarren bidez finantzatu da: 83200-4000 "FIP Planerako transferentziak"; proiektua, 60002; lerroa, 39450-6; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegaturara.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

"333/1998 EBAZPENA, ekainaren 18koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu-gehikuntza eskatu du ondoko kontusailean: "Epaia betearaztea. Osasun-laguntzarengatik diru-itzulketak"; lerroa, 23055-7; zenbatekoa, 775.073 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara handiagoekin finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 1. puntuan eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- “1998an indarra duen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 52202-4809-4112 “Epaia betearaztea. Osasun-laguntzarengatik diru-itzulketak” kontusaila; proiektua, 48000; lerroa, 23055-7; zenbatekoa, 775.073 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: 11400-8700 “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an.

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**340/1998 EBAZPENA**, ekainaren 24koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin duen eskaria; haren bidez proposatzen da kreditu gehikuntza egitea ondoko kontusailean: “FEOGA laguntzak” kontusaila; lerroa, 28371-5; zenbatekoa, 400.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: “FEOGA eta IFOP laguntzak EEEaren erregelamenduen markoan: 866/90 eta 867/90”; lerroa, 38830-1; zenbatekoa: lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izanen dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin, izaeragatik horien helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrerek. Aipatutako artikulua, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena. Aurrekoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen Aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 72120-7701-7151 “FEOGA laguntzak”; proiektua,

60001; lerroa, 28371-5; zenbatekoa, 400.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean egindako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: 72120-7902 “FEOGA eta IFOP laguntzak EEEaren erregelamenduen markoan: 866/90 eta 867/90” kontusaila; lerroa, 38830-1.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an.

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**348/1998 EBAZPENA**, ekainaren 25ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Lan Harremanetarako Zerbitzuak egindako eskaria; haren bidez, kreditu-gehikuntza egitea eskatzen da ondoko kontusailean: “Epaia exekutatzeko” kontusaila; lerroa, 01990-2; zenbatekoa, 3.355.307 pezeta. Kontusail honetan izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; lerroa, 35465-2.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikularen 1. puntuko a) idatzian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 04000-1709-1226 “Epaia exekutatzeko” kontusaila; proiektua, 20002; lerroa, 01990-2; zenbatekoa, 3.355.307 pezeta. Kontusail honetan izandako dirusarrera handiagoeekin kargura finantzatu da: 11400-8700 “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea” kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Lan Harremanetarako Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean.

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**349/1998 EBAZPENA**, ekainaren 25ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herrilan Zerbitzuak kreditu-transferentzia eskatu du 20000 proiektuko “Azterlan eta proiektuak” kontusaileko 96009-1 lerrotik 11002 proiektuko “Mapagintza” kontusaileko 96008-3 lerrora; zenbatekoa: 10.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko gastuen aurrekontuan kreditu transferentzia egitea 20000 proiektuko “Azterlan eta proiektuak” 61120-6091-5134 kontusaileko 96009-1 lerrotik 11002 proiektuko “Mapagintza” 61330-6092-5511 kontusaileko 96008-3 lerrora; zenbatekoa: 10.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura (Herrilan Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailera Delegatura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**335/1998 EBAZPENA**, ekainaren 10ekoa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiak emana, 1998ko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik, 1998rako aurrekontuko kontusailen kreditu-gehikuntza egitea beharrezkoa dela, beste kontusail batetik dirua transferituz; kontuan harturik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 46.2 artikulua arabera, Kontseilariak, nork bere

Departamentuan, artikulua horretan aipatzen diren kreditu-transferentziak baimen ditzaketela.

Ikusirik, halaber, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan duen kontuhartzailera delegatuak aldeko txostena eman duela.

Hori horrela, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak 1996ko abenduaren 2an emaniko Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998ko aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

| ABONAMENDUA | PEZETA |
|---|--|
| 82210-2300-7512 lerroa, 30710-0 Proiektua, 5001 | Dietak eta lokomozioa 3.000.000 |
| KARGUAK | PEZETA |
| 82210-6092-7512 lerroa, 30820-3 Proiektua, 5001 | Azterlanak eta proiektua, Kongresuen jauregia Auditorioa 3.000.000 |

2.- Ebazpen hau igortzea Turismo Zerbitzura, Nafarroako Parlamentura eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen kontuhartzailera delegatuari, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak: Angel Sola Jimeno”

“**362/1998 EBAZPENA**, uztailaren 2koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen ondoko kontusailean: “INAFRE fundazioarekin hitzarmena egitea prestakuntza jarraiturako EGfK kofinantzatutako eta kofinantzatu gabekoak”; lerroa, 31222-7; zenbatekoa, 173.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu dira:

– “Enplegu ekimenerako ekintzak, HORIZON kapitulua. Minusbaliatuak gizarteratzea”; lerroa, 31030-5; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta.

– “Enplegu ekimenerako ekintzak, NOW kapitulua. Emakumeak gizarteratzea”; lerroa, 31040-2; zenbatekoa, 12.840.000 pezeta.

– “Enplegu ekimenerako ekintzak, YOUTHSTART kapitulua. Gazteak gizarteratzea”; lerroa, 31050-0; zenbatekoa, 20.700.000 pezeta.

– “ADAPT ekimenerako egokitzapenak. Langileak teknologiarantz egokitzea”; lerroa, 31060-7; zenbatekoa, 11.460.000 pezeta.

– “1997ko KPIaren desbideraketa ordainsarrietan eguneratzea”; lerroa, 01670-9; zenbatekoa, 43.000.000 pezeta.

– “KPI errealean 1997rako aurreikusitakoarekiko desbideraketa”; lerroa, 01680-6; zenbatekoa, 80.000.000 pezeta.

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailan: 83200-4810-3221 “INAFRE fundazioarekin hitzarmena egitea prestakuntza jarraiturako EGfK kofinantzatuak eta kofinantzatu gabekoak”; proiektua, 60002; lerroa, 31222-7; zenbatekoa, 173.000.000 pezeta. Gastuen kontusailan baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu dira:

– 83200-4810-2-3221 “Enplegu ekimenerako ekintzak, HORIZON kapitulua. Minusbaliatuak gizarteratzea” kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 31030-5; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta.

– 83200-4810-3-3221 “Enplegu ekimenerako ekintzak, NOW kapitulua. Emakumeak gizarteratzea” kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 31040-2; zenbatekoa, 12.840.000 pezeta.

– 83200-4810-4-3221 “Enplegu ekimenerako ekintzak, YOUTHSTART kapitulua. Gazteak gizarteratzea” kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 31050-0; zenbatekoa, 20.700.000 pezeta.

– 83200-4810-5-3221 “ADAPT ekimenerako egokitzapenak. Langileak teknologiarantz egokitzea” kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 31060-7; zenbatekoa, 11.460.000 pezeta.

– 04000-1620-1226 “1997ko KPIaren desbideraketa ordainsarrietan eguneratzea” kontusaila; proiektua, 20000; lerroa, 01670-9; zenbatekoa, 43.000.000 pezeta.

– 04000-1620-1226 “KPI errealean 1997rako aurreikusitakoarekiko desbideraketa” kontusaila; proiektua, 20000; lerroa, 01680-6; zenbatekoa, 80.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta

Lan Departamentura eta Funtzio Publikoaren Zerbitzura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko uztailaren 2an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“354/1998 EBAZPENA, ekainaren 17koa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiarena, 1998ko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik, 1998rako aurrekontuko kontusailen kreditu-gehikuntza egitea beharrezkoa dela, diru beste kontusail batetik transferituz; kontuan harturik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 46.2 artikulua araberak, Kontseilariak, nork bere Departamentuan, artikulua horretan aipatzen diren kreditu-transferentziak baimen ditzaketela.

Ikusirik, halaber, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan duen kontuhartzaila delegatuak aldeko txostena eman duela.

Hori horrela, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak 1996ko abenduaren 2an emaniko Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998ko aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

| ABONAMENDUA | PEZETA |
|--|-----------|
| 82210-2266-7514 Jardunaldi eta bestelako Lerroa, 30680-4 jardueren ondorioz turis- Proiektua, 5001 moa sustatzeko sortutako gastuak | 9.000.000 |

| KARGUAK | PEZETA |
|---|-----------|
| 82210-6092-7512 Kongresuen Jauregia eta Lerroa, 30820-3 Auditorioa egiteko azter- Proiektua, 5001 lanak eta proiektua | 9.000.000 |

2.- Ebazpen hau igortzea Turismo Zerbitzura, Nafarroako Parlamentura eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen kontuhartzaila delegatuari, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak: Angel Sola Jimeno”

“**357/1998 EBAZPENA**, ekainaren 17koa, Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiarena, 1998rako aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik 1998rako Aurrekontuko hainbat kontusailetan beste kontusail batetik egindako transferentzia bidez kreditu-gehikuntza egiteko beharra, eta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikulua araber, Kontseilari, beren Departamentuen eskumen-eremuaren baitan, artikulua horretan zehazten diren kreditu-transferentziak baimendu ditzaketela kontutan edukiz.

Ikusirik, halaber, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan den Ekonomi eta Ogasun Departamentuko kontuhartzaile delegatuak aldeko txostena eman duela.

Horrenbestez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren 1996ko abenduaren 2ko Foru Aginduaren bidez eskuordetuta ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998ko aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

| ABONAMENDUA | | PEZETA |
|-----------------|---|------------|
| 82210/4810/7512 | Elkartek kudeatzeko transferentziak | 19.550.000 |
| 82210/1703/7512 | Jai egunetako lana ordaintzea | 2.500.000 |
| 82210/6092/7512 | Kongresuen Jauregia eta Auditorioa egiteko azterlanak eta proiektua | 22.050.000 |

2.- Ebazpen hau jakinaraztea Turismo Zerbitzuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen Kontuhartzaileari, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak:
Angel Sola Jimeno”

“**402/1998 EBAZPENA**, uztailaren 1ekoa, Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiarena,

1998rako aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik 1998rako Aurrekontuko hainbat kontusailetan beste kontusail batetik egindako transferentziaren bidez kreditu-gehikuntza egiteko beharra, eta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikulua araber, Kontseilari, beren Departamentuen eskumen-eremuaren baitan, artikulua horretan zehazten diren kreditu-transferentziak baimendu ditzaketela kontutan edukiz.

Ikusirik, halaber, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan den Ekonomi eta Ogasun Departamentuko kontuhartzaile delegatuak aldeko txostena eman duela.

Horrenbestez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren 1996ko abenduaren 2ko Foru Aginduaren bidez eskuordetuta ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998ko aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

| ABONAMENDUA | | PEZETA |
|-----------------|--|------------|
| 82210/4600/7512 | Udal sustapeneko pakete turistikoak eta bestelako jarduketak sustatzea | 12.400.000 |
| 82210/7709/7512 | Ekimen pribaturako transferentziak. | 12.400.000 |

2.- Ebazpen hau jakinaraziko zaio Nafarroako Parlamentuari eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen kontuhartzaile delegatuari.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak:
Angel Sola Jimeno”

“**977/1998 EBAZPENA**, abuztuaren 12koa, Barne zuzendari nagusiarena, kreditu-lotura maila berekoak ez diren kontusailen arteko aurrekontualdaketa baimentzen duena.

Ikusirik Foruzaingo Zerbitzuko zuzendariak egindako eskaria; haren bidez, ondoko barneko kreditu-transferentzia eskatzen du:

Gehikuntza:

Proiektua, 51000; izena "Aire bidezkoak eta bestelako zerbitzuak" 02100-2279-2221; lerroa, 90049-8; zenbatekoa, 19.900.000 pezeta.

Gutxiagotzea:

Proiektua, 51001; izena "Tuterako Komisariako lanak" 02100-6021-2221; lerroa, 90052-8; zenbatekoa, 19.900.000 pezeta.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idaztiak haxe xedatu du: "Nafarroako Gobernu Kontseilariak, beraien departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete, hurrengo baldintzak betetzen badira, betiere: a) Artikulu honetako 1. zenbakiak Lehendakari eta Barne Kontseilariari gordetzen dizkion gaiak ez ukitzea; b) Programaren helburuak ez aldatzea.

Ikusirik Kontularitza-Kontuhartzaitzak eginda txostena, Lehendakari eta Barne Kontseilariaren urriaren 25eko 657/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetuak ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1go. Indarreko gastuen aurrekontuan ondoko kreditu-transferentzia egitea:

Gehikuntza:

Proiektua, 51000; izena "Aire bidezkoak eta bestelako zerbitzuak" 02100-2279-2221; lerroa, 90049-8; zenbatekoa, 19.900.000 pezeta.

Gutxiagotzea:

Proiektua, 51001; izena "Tuterako Komisariako lanak" 02100-6021-2221; lerroa, 90052-8; zenbatekoa, 19.900.000 pezeta.

2gn. Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura eta Lehendakari eta Barne Departamentuko Kudeaketa Ekonomikorako bulegora, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 12an

Barne zuzendari nagusia: Alfredo González Echarren"

KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailean 2an harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren foru agindu batek eta Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutako zuzendari nagusien ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo abuztuan igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-gehikuntza, kreditu-transferentzia edo kreditu-sorkuntza dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin eta, baita ere, 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoarekin.

Iruñean, 1999ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa

Lekualdatze lehiaketa hutsik geratu da

1999ko maiatzaren 17ko 61 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, teknikari lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. Eskariak aurkezteko epea ekainaren 1ean bukatu da, eta ez da eskaririk aurkeztu.

Horrenbestez, deialdiko 4.3. oinarrian ezarritakoari jarraituz, horri buruzko ebazpena eman dut.

EBAZPENA:

1go. "Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lan-

postu huts, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia" eman gabe uztea. Deialdi hori 1999ko maiatzaren 17ko 61 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2gn. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko ekainaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko azaroan egindako bilerak

MAHAIA

5, 16 eta 25ean.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 6, 9, 13, 17 eta 24an.

OSOKO BILKURA

4 eta 5ean:

– ETA erakunde terroristak iragarritako su-ete-nari buruzko Nafarroako Gobernuaren komunikazioa eztabaidatu eta bozkatzea.

12an:

– Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganberari buruzko Foru Lege proiektuaz onetsi duen irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistikari buruzko Foru Lege proiektuaz onetsi duen irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Hurrengo eztabaidatu eta bozkatzea: Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX Tituluko II. Kapitulu aldazten duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen.

– Toki Administrazioiko Batzordeak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenaz onetsi duen irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena, Landa Marco jaunak aurkeztua.

– Jabeldura, José M^a Iribarren ikastetxean D ereduko lerro bat irekitzearen gainean Parlamentuak onetsitako erabakiak ez betetzei buruzkoa, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurri guztiak eskain ditzan Lodosako "Pablo Sarasate" Batxilergoko Institutuko ikasleek dohainiko eskola-garraioa izan dezaten.

– Espainiar Estatuko Ingurugiro Ministerioa eta Nafarroako Gobernua sinatzera doazen Hitzarmenean ezarritako finantzaketarekin exekutatu nahi den proiektu teknikoari buruzko galdera, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

– Espainiar Estatuko Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmenak xede duen aurrekontuaren finantzaketak jatorria duen proiektuari buruzko galdera, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

– Nafarroako ubidearen ingurugiro-eraginari buruzko deklarazio-proiektuan Europako Batasunaren gomendioa betetzen ote den itauntzen duen galdera, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

– Nafarroako ubidearen proiektu berriaren ingurugiro-eraginari buruzko deklarazio-proiektuaren prestakuntzan Nafarroako Gobernuak esku hartzei buruzko galdera, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

– Nafarroako ubidearen proiektu berriaren ingurugiro-eraginari buruzko deklarazio-proiektuaren prestakuntzan izandako irizpide berriei buruzko galdera, Romeo Lizarraga jaunak aurkeztua.

25ean:

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu osoko emendakinak, halakorik balitz, eztabaidatu eta bozkatzea.

– 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu osoko emendakinak, halakorik balitz, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Foru Lege proposamena, Administrazio jarduleak urbanizazio-zametan partehartzerik izan ez dezan, lurjabeek lurzorua derrigorrez eta doan lagatzearen ondoriozkoetan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Aintzat hartzea ala ez hartzea.

– Foru Lege proposamena, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua. Aintzat hartzea ala ez hartzea.

– Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektuaz onetsi duen irizpea eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Aintzat hartzea ala ez hartzea.

– Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzei buruzkoa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Aintzat hartzea ala ez hartzea.

– Frekuentzia modulatu uhin metrikozko irradi emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espeditetari buruzko ikerketa batzordea sortzeko proposamena.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

3an:

– Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuaren irizpea eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Prebentzio Ordezkariren Pretakuntza Plan bat gara dezan.

19an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Kontseilariaren eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Castejónen bi zentral termikoren balizko kokatzearen berri eman dezaten.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

3an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, unibertsitateko irakaskuntza koordinatzeko lege baten balizko izapidatzearen berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Nafarroako Komunitatean egindako hizkuntzen azterketatik ateratako emaitzen berri eman dezan.

10ean:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

13an:

– Lan bilera. Bertan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko arduradunek Foru Komunitateko ondare historiko-artistikoaren egoeraren berri emanen dute.

24an:

– Lan bilera. Bertan, Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko gurasoen ordezkariak "D" ereduak ez zatibitzei buruzko arazoaren berri emanen dute.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Nafarroako Liburutegi Nagusiko liburu-ondarearen kontserbazio baldintzen berri eman dezan.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

6an:

– Landa Marco jaunak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejóndik Corteseraino doan N-232 errepidearen zatia destoles dezan.

20an:

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Belateko tunelari buruzko txostenaren edukiaren berri eman dezan.

26an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Belateko tuneleko obren garapenean sortu den egoeraren berri eman dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

10ean:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Magnesitas de Navarra, SAren instalazioetatik hurbil gertatu den hondakin lehergarrien isurketaren berri eman dezan.

11n:

– Landa Marco jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hiri hondakin solido, toxiko edo eta arriskutsuak erretzeko jarduketak debeka ditzan.

17, 18, 20 eta 27an:

– 1998-2007 Nafarroako Basoei buruzko Planari aurkezturiko proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

24 eta 26an:

– 1998-2008 Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoari aurkezturiko proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

11n

– Lan bilera. Bertan, SOS Racismo erakunde-ko ordezkariak batek Buñuelgo prostituzio etxe batean atxilotutako zenbait emakumearen egoeraren berri emanen du.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

11n:

– Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Administrazioari aldi baterakotasuna eta aparteko orduak murriztearen berri eman dezan.

– Landa Marco jaunak Augusto Pinochet jeneral txiletarraren estradizioari buruz aurkeztu duen mozioa eztabaidatu eta bozkatzea.

19an:

– Lan bilera. Bertan, Euskal Herrian Euskaraz taldeko ordezkariak batek Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzearen berri emanen du.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEA

12an:

– Nafarroako nekazari eta abeltzainei arreta egiteko Eskualde Planari aurkeztu zaizkion proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

13an:

– Lan bilera. Bertan, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, nahi dituen Zuzendari Orokorak eta teknikoak lagunduta, 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren berri emanen du.

17an:

– Kontuen Ganbarako Lehendakari jaunaren agerraldia, Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainean Ganbara horrek emandako Txostenaren berri emateko.

OSASUN BATZORDEA

19an:

– Lan bilera. Bertan, UGT eta CCOO sindikatuetako ordezkariak banak laneko osasunari buruz dituen proposamenen berri emanen du.

20an:

– Lan bilera. Bertan, Antox eta Oasis taldeetako ordezkariak banak toxikomanoak birgaitzeko eta bergizarteratzeko dituen lan planen berri emanen du.

GIZARTE GAJETAKO BATZORDEA

20an:

– Lan bilera. Bertan, Salhaketa elkartearen ordezkariak batek Mariano Jiménez Abajo nafar presoaren egoeraren berri emateko.

27an:

– Lan bilera. Bertan, "Eskubide Sozialen Gutuna"ren aldeko herriaren legegintza-ekimeneko ordezkariak sinadurak biltzeko kanpainaren berri emanen dute.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

27an:

– Nafarroako Lehendakariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, oraindik egin gabeko transferentzien prozesuaren egoeraren berri eman dezan.

1998ko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

2an:

– Emendakinak (1etik 17ra, biak barne), «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak. Ehiza plan estrategikoa.

– Carlos Cristóbal García Foru Parlamentario jaunaren eta «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeko beste batzuen idazkia. Hauxe eskatu dute: ikerketa batzorde bat sortzea, Nafarroan FM emisoreak esleitzeko kontratazio-espeditentea azter dezan.

– Centrisaren idazkia. Web orria diseinatzeko proiektuari buruzko dokumentazioa aurkeztu dute.

– Erabaki-proposamenak (1etik 30era, biak barne), Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkeztuak. Nafarroako ehiza plan estrategikoa.

– Auzitegi Nagusiaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko hainbat gairi buruzko ziurtagiria.

– Mozioa. Horren bidez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen da lor dezan, Errioxa eta Nafarroa jatorrizko izendapenatarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak mahasti gehiago jartzeko baimena ematea, «Nafarroako Demokratik Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Digitalia-ren idazkia. Harekin batera, kontratazio mahaiak 98-10-29an eskatu ziona bidali du.

3an:

– Aralar, SLren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala inprimatu, enbalatu eta banatzeko lehiaketarako eskatu zaien dokumentazioa.

– Estatuko Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzaren idazkia, birjarpen errekurtsioa dela-eta.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen bozeramailearen idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro kontseilariak egin behar zuen agerraldia –alegia Gurelur-ek Europako Batzordearen aurrean aurkeztu kexuari buruzko informazioa emateari buruzkoa– erretiratzea; orobat, aipatu gaiari buruzko lan-bilera bat egitea.

– Intermón-en idazkia (hirugarren mundurako fundazioa baita). Hauxe eskatu du: Lehendakari

andrearekin edo talde parlamentarioen bozeramaileekin elkarrizketa bat izatea.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Elortz ibaian, Etxabakoitzen parean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak itzularoko ehiza arautzeko onetsi duen testua dela-eta, ehiztariek, 98.6.4ko bilkuran, aurkeztu dituzten proposamenei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Iruñerriko egoitza-lurzorua eragoera dela-eta egin duen azterlanari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro María Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak egindako galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, aho-hortzetako arretari eta eta hori eskaintzeko moduari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak egindako galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko irakasleei buruzko galderari.

4an:

– Erabaki-proposamenak, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak. Nafarroako ehiza plan estrategikoa (5).

– Erabaki-proposamenak (1-67), «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak. Nafarroako ehiza plan estrategikoa.

– Erabaki-proposamenak (1-55), «Nafarroako Demokratik Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak. Nafarroako ehiza plan estrategikoa.

– Salvador Ochoa Pascual jaunaren idazkia. Familiaren identitateari buruzko oldozpen batzuk bota eta hainbat lege betetzen ez dela salatzen.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: lan-bilera bat egitea Gizarte Eskubideen Gutunaren aldeko herri ekimen legegilea izenpetu dutenekin.

– Estatuko Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren idazkia. Harekin batera, aipatu ordezkari-tzaren erregistro orokorrean aurkeztu den dokumentazioa, birjarpen errekurtso bati buruzkoa.

5ean:

– «Unión del Pueblo Navarro», «Socialistas de Parlamento de Navarra» eta «Nafarroako Demokraten Elkargunea» talde parlamentarioek aurkezturiko erabaki-proposamenak. Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, ETAK iragarri menia dela-eta.

– Erabaki-proposamenak, (1etik 6ra) Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal foru parlamentario jaun-andreek aurkeztuak. Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, ETAK iragarri menia dela-eta.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: gizarte zerbitzuen alorreko inbertsioetarako deialdiaren gaineko informazioa.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Burlatako Santa María zentroa kudeatzeko AGEDNarekin izenpetu hitzarmenari buruzko informazioa.

– Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak egina.

